Bestelako Xedapenak

ETXEBIZITZA, HERRI LAN ETA GARRAIO SAILA

3999

EBAZPENA, 2009ko maiatzaren 12koa, Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendariarena; horren bitartez, Eptisa Cinsa Ingeniería y Calidad SA entsegu laborategiari kreditazioa ematen zaio eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko honako arlo honetan: «altzairuzko egitura profilen soldaduraren kontrola».

Apirilaren, 20ko 69/2004 Dekretuaren bidez arautu zen (Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkariaren 2004ko maiatzaren 4ko alea, 82. zenbakiduna) zein jardunbide erabili behar den eraikuntzaren kalitatea zaintzeko laborategiak kreditatzeko Euskal Autonomia Erkidegoaren esparruan.

2008ko abenduaren 11n, Eptisa Cinsa Ingeniería y Calidad SA entitateak eraikuntza-egituretarako altzairuaren arloan (EAS) eraikuntzaren kalitatea kontrolatzen jardungo duen entsegu-laborategi gisa kreditatzeko eskaera aurkeztu zuen.

Entitateak aurkeztutako dokumentazioa aztertuta ikusi zen egokia zela. Hori dela eta, 2009ko maiatzaren 12an laborategiari ikuskapen-bisitaldia egin zitzaion, eta bertan egiaztatu ahal izan zen kreditazio-baldintzak bete egiten zirela. Ondoren, akta idatzi zen.

Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Saileko Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontrol Zuzendaritza da eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko entsegu-laborategien erakunde egiaztatzailea. Berari dagokio, beraz, entsegu-laborategien kreditazioak eman eta berritzea. Hala dago xedaturik eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko entsegu-laborategiak kreditatzeari buruzko apirilaren 20ko 69/2004 Dekretuaren 4. artikuluan, Etxebizitza eta Gizarte Gaietako Sailaren egitura organiko eta funtzionala ezartzen duen azaroaren 15eko 373/2005 Dekretuaren 11.p) artikuluan aurreikusitakoa dela eta.

Azaldutako guztiagatik,

EBATZI DUT:

Lehenengoa.– Eraikuntzaren kalitatea kontrolatzeko Eptisa Cinsa Ingeniería y Calidad SA izeneko entsegu-laborategiari (Cervantes etorbidea, 51. zk., Basauri, Bizkaia) kreditazioa ematea ondoko arlo honetan: «Altzairuzko egitura-profilen soldaduraren kontrola», 10002EAS09 kodea duena, oinarrizko B entsegu-taldeentzat.

Otras Disposiciones

DEPARTAMENTO DE VIVIENDA, OBRAS PÚBLICAS Y TRANSPORTES

3999

RESOLUCIÓN de 12 de mayo de 2009, de la Directora de Vivienda, Innovación y Control, por la que se concede al laboratorio de ensayos Eptisa Cinsa Ingeniería y Calidad, S.A. la acreditación para el control de calidad de la edificación en el área de «control de la soldadura de perfiles estructurales de acero».

Mediante Decreto 69/2004, de 20 de abril, publicado en el Boletín Oficial del País Vasco n.º 82, de 4 de mayo de 2004, se regula el procedimiento a seguir en la acreditación de laboratorios de ensayo para el control de calidad de la edificación en el ámbito de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

La entidad Eptisa Cinsa Ingeniería y Calidad, S.A. presentó con fecha 11 de diciembre de 2008, solicitud de acreditación como laboratorio de ensayo para el control de calidad de la edificación en el área Acero para estructuras de edificación (EAS).

Una vez comprobada la documentación presentada por la entidad y encontrada la misma conforme, se procedió con fecha 12 de mayo de 2009 a la realización de visita de inspección al laboratorio, verificándose en la misma el cumplimiento de las condiciones de acreditación, tras lo cual se levantó el acta correspondiente.

La concesión y renovación de las acreditaciones de laboratorios de ensayos para el control de calidad de la edificación corresponde a la Dirección de Vivienda, Innovación y Control del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales, como organismo acreditador al que se refiere el artículo 4 del Decreto 69/2004, de 20 de abril, sobre acreditación de laboratorios de ensayo para el control de calidad de la edificación, en relación con lo dispuesto en el artículo 11.p) del Decreto 373/2005, de 15 de noviembre, por el que se establece la estructura orgánica y funcional del Departamento de Vivienda y Asuntos Sociales.

En consecuencia con todo lo anteriormente expuesto,

RESUELVO:

Primero.– Conceder la acreditación al laboratorio de ensayos Eptisa Cinsa Ingeniería y Calidad, S.A., con domicilio en Avda. Cervantes, n.º 51, de Basauri (Bizkaia), para el control de calidad de la edificación en el área de «control de soldadura de perfiles de acero» con el código 10002EAS09, para los grupos de ensayos básicos B.

Kreditazioak bost urteko indarraldia izango du eta emate-ebazpena Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean sartuko da indarrean.

Indarraldi hori laburragoa izango da kreditazioa baliogabetzen bada, apirilaren 20ko 69/2004 Dekretuaren 12. artikuluan jasotako kasuren baten ondorioz.

Bigarrena.– Apirilaren 20ko 69/2004 Dekretuaren 19. artikuluarekin bat etorriz, Eptisa Cinsa Ingeniería y Calidad SA laborategiari kreditazio-tasaren zenbatekoa ordainaraztea. Kopuru hori, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren tasa eta prezio publikoei buruzko irailaren 29ko 3/2006 Legean jasota dago.

Hirugarrena.– Ebazpen honek ez du amaitzen administrazio-bidea; beraz, Herri- Administrazioen Araubide Juridikoaren eta Administrazio Prozedura Erkidearen 30/1992 Legearen 114. artikuluari eta hurrengoei atxikiz, bere aurka gora jotzeko errekurtsoa aurkeztu ahal izango da, Etxebizitza sailburuordeari zuzenduta. Horretarako epea hilabetekoa da eta ebazpen hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzen den egunaren biharamunean hasiko da.

Vitoria-Gasteiz, 2009ko maiatzaren 12a.

Etxebizitza, Berrikuntza eta Kontroleko zuzendaria,
MARÍA PILAR GARRIDO GUTIÉRREZ.

Dicha acreditación tendrá un periodo de validez de cinco años, y surtirá sus efectos a partir del día siguiente a la fecha de publicación de la resolución de concesión en el Boletín Oficial del País Vasco.

El mencionado período de validez podrá verse acortado en caso de cancelación de la acreditación, motivada por alguno de los supuestos contemplados en el artículo 12 del Decreto 69/2004, de 20 de abril.

Segundo.– Acordar, de conformidad con el contenido del artículo 19 del Decreto 69/2004, de 20 de abril, el abono por parte del laboratorio Eptisa Cinsa Ingeniería y Calidad, S.A. del importe correspondiente a la tasa de acreditación que proceda según lo dispuesto a tal efecto en la Ley 3/2006, de 29 de septiembre, de Tasas y Precios públicos de la Administración de la Comunidad Autónoma del País Vasco.

Tercero.– Contra la presente resolución, que no agota la vía administrativa, podrá interponerse recurso de alzada ante el Viceconsejero de Vivienda, en el plazo de un mes desde el día siguiente a su publicación en el Boletín Oficial del País Vasco, de conformidad con lo dispuesto en los artículos 114 y siguientes de la Ley 30/1992, de Régimen Jurídico de las Administraciones Públicas y del Procedimiento Administrativo Común.

En Vitoria-Gasteiz, a 12 de mayo de 2009.

La Directora de Vivienda, Innovación y Control,
MARÍA PILAR GARRIDO GUTIÉRREZ.